

## **Euskadiko hiru lurraldeen artean gazteek etxebizitza eskuratzeko esfortzu handien Gipuzkoan egin behar dute**

[Gazteen Euskal Behatokiak](#) argitaratu berri du '[Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2014](#)' izeneko txostena. Txosten honetan bere kabuz emantzipatu nahi duen 18 eta 34 urte bitarteko gazte soldatadun bati etxebizitza, jabetzan zein alokairuan, eskuratzeko dakarkion kostu teorikoa kalkulatu da.




**Eskuratzeko-kostu hori kalkulatzeko kontuan** hartzen dira adin tarte horretako gazteen batez besteko **soldatak**, batetik, eta bestetik, Euskadiko lurralde bakoitzeko etxebizitzaren batez besteko **salneurriak**, kontratatutako hipoteka-maileguren batez

besteko **interes-tasak** bai eta mailegu horien batez besteko iraunaldia ere, erostea aukeratuz gero, edo batez besteko **alokairu-errentak**, alokatzea erabakitzen bada. Dena dela, **estimazio teorikoa** da, batez besteko balioak hartzen direlako kontuan eta ez kasu bakoitzeko berezitasunak (soldata, etxebizitzaren prezioa, hipoteka-maileguaren baldintzak horrelakorik egonez gero, eta abar).

Kalkuluen arabera, **Gipuzkoako** 35 urtetik beherako **gazte** soldatadun **batek bere hileko soldata garbiaren % 67,4 bideratu beharko** luke merkatu librean etxebizitza erosteko hipotekaren lehen hilerokoa ordaintzera.

Gipuzkoan **etxebizitza merkatu librean erosteko** esfortzu hori (soldata garbiaren % 67,4 horretan gastatzea eskatzen duena) **Bizkaian** bizi den gazte batek egin beharrekoa (bere soldata garbiaren **% 57,0** gastatzea) baino hamar puntu handiagoa da eta **Arabako gazte** batek egin beharrekoa (soldata garbiaren **% 52,7**) baino hamabost puntu handiagoa da.

**Alokatzea** aukeratuz gero, egoera antzekoa da: **Gipuzkoako** gazteek kostu handiagoei egin behar diete aurre (beren **soldata garbiaren % 64,9**), **Bizkaikoek** baino (**% 59,9**) eta azken horiek **Arabako gazteek** baino esfortzu handiagoa (**% 54,7**), beti ere merkatu libreko etxebizitza bat bakarka alokatzeko egoera hipotetikoan.



Zergatik daude lurraldeen arteko alde horiek? **Gipuzkoan etxebizitzaren salneurriak**, baita alokairu-errentak ere, beste lurraldeetan baino **garestiagoak** direlako, batez ere Araban baino garestiagoak, Araban preziorik baxuenak aurki baitaitezke, eta **soldatak**, aldiz, **antzekoak** dira hiru lurraldeetan.

Bukatzeko, aipa dezakegu Gipuzkoan zertxobait onargarriagoa dela gazte batentzat etxebizitza alokatzea erostea baino; aitzitik, Bizkaian eta Araban gutxixeago kostatzen du hipoteka ordaintzeak etxebizitza alokatzeak baino.

Esteka hauetan [txosten osoa](#) eta [laburpena](#) kontsulta daitezke.